

MODULUA APLIKATZEKO ETA GARATZEKO JARRAIBIDEAK LANTOKIKO PRESTAKUNTZA 2019-2020 IKASTURTEA

Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzuak jarraibide hauek prestatu ditu, arau hauen osagarri: 45/2009 Foru Agindua, apirilaren 2koa (maiatzaren 8ko NAO), Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako irakaskuntzen barruko Lantokiko Prestakuntza Moduluaren garapena arautzen duena, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan; 34/2013 Foru Agindua, apirilaren 5koa (apirilaren 29ko NAO), Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 2ko 45/2009 Foru Agindua aldatzen duena; eta 487/2019 Ebazpena, abuztuaren 7koa (irailaren 6ko NAO), Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, hezkuntza sistemaren Lanbide Heziketako ikasketak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta funtzionamendua 2019-2020 ikasturtean arautzeko jarraibideak onesten dituena.

1.- LP MODULUA EGITEKO TOKIAK

Lantokiko Prestakuntza modulueterako finkaturik dagoen curriculuma behar bezala garatzeko egokiak diren enpresa eta erakundeetan eginen da modulu honetako prestakuntza.

LPko tutorea izanen da, entitate laguntzaile bakoitza aurretik ezagututa eta bere ikastetxeko zuzendaritza taldearen oniritziarekin, ikasle bakoitzari, bere ezaugarriak kontuan hartuta, modulua egiteko lantokia esleituko diona. Ez da inola ere ikaslearen gain utziko bere prestakuntza tokia bilatzeko ekimena.

Ikastetxeak LPa egiteko hautatzen dituen entitate laguntzaileak, ahal dela, ikastetxearen eragin eremuan egonen dira. Zilegi izanen da ziklo zehatz bati dagokion Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko beste eremu bat esleitzea, eremu horretan ez badago ziklo hori eskaintzen duen ikastetxerik edo, bestela, enpresaren ezaugarriak, eginkizunak edo laneratzeko aukera garbi bat dagoela kontuan hartuta, modulu hori egiteko toki egokia dela uste bada.

2.- ENPRESEKIN LANKIDETZA HITZARMENA FORMALIZATZEA.

Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko berriazko lankidetzaren hitzarmenak hiru aletan formalizatuko dira, eta enpresa edo erakunde laguntzailearen legezko ordezkariak eta ikastetxeko zuzendariak izenpetu beharko dituzte, Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Ataleko buruaren oniritziarekin, ezarritako ereduaren arabera. Hitzarmen horien gutxienezko iraupena bi urtekoa izanen da izenpetzen direnetik, eta besterik gabe luzatu direla ulertuko da sinatzaileetako batek ere kontrakorik adierazi ezean.

“Ikaslea-Enpresa Harremana” izeneko agiria ere egingen da eta bi ale bidaliko dira Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalera.

Hezkuntza Departamentuak enpresa edo entitate laguntzaile bakoitzean Lantokiko Prestakuntzan ari diren ikasleen berri emanen dio Lan eta Immigrazio Ministerioaren Nafarroako Lurralde Zuzendaritzari.

Ikasleei lantokiak esleitu baino lehen, aurreko puntuetan adierazitako tramiteak egin behar dira.

3.- IKASLEEN ETA ENPRESA EDO ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN ARTEKO HARREMANA

Lantokiko Prestakuntza egiteko berariazko lankidetzaz hitzarmenaren ondorioz ikasleen eta enpresa edo erakunde laguntzaileen artean ezarritako harremanak ez du, inola ere, izaera juridiko laboralik edo funtzionarialik izan.

Enpresak ezin du plantillako lanposturik bete prestakuntzan ari den ikasle batekin, non ez den horretarako soldatapeko zerbitzu harremana ezartzen, baina, kasu horretan, ikaslearentzat Lantokiko Prestakuntza amaitu dela ulertuko da. Hori gertatuz gero, enpresak ikastetxeko tutoreari jakinarazi beharko dio, eta hark Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalari.

Ikasleak lantokian izanen duen prestakuntzako lanaldia eta asteko banaketa, oro har, prestakuntzan arituko den enpresako atal edo departamentuan diharduten langileenen antzekoak izanen dira, justifikatutako salbuespenekin. Enpresak izendatutako arduradunak kontrolatuko du horiek betetzen diren.

4.- PRESTAKUNTZA PROGRAMA.

Lantokiko Prestakuntza moduluaren prestakuntza programak, erreferentzia gisa, modulu horretarako ezarritako curriculum hartuko du.

Ikastetxeko tutoreak proposatuko ditu ikasleak enpresan egingen dituen jarduerak eta lortu ahalko dituen ikaskuntza emaitzak, eta adostuko ditu Lantokiko Prestakuntza modulua egingen den entitate laguntzaileak horretarako izendatzen duen arduradunarekin. Prestakuntza programaren ale bat, bi aldeek izenpetua, emanen zaio ikasleari.

Ikasleak LPan hasi baino lehen egin behar dira prestakuntza programa prestatzeko eta izenpetzeko lan horiek.

5.- LANTOKIKO PRESTAKUNTZAREN JARRAIPENA

Ikastetxeko tutoreak egutegi bat zehaztuko du Lantokiko Prestakuntza moduluaren jarraipena egiteko, enpresa edo entitate laguntzaileetara gutxienez 3 aldiz joatea kontuan hartuko duena. Halaber, kasu bakoitzean, beharrezko kontaktu eta bisita guztiak egingen ditu, LP modulua behar bezala gara dadin.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko zikloetan, enpresa, estudio eta lantegietako prestakuntza praktikoko faseak gutxiago irauten duenez, ikastetxeko tutoreak gutxienez bisita bat eta beharrezko kontaktu guztiak egingen ditu praktikaldiak behar bezala garatzeko.

Ikastetxeko tutoreak hiru tutoretza saio egingen ditu ikastetxean LP moduluak irauten duen bitartean, bere ikasle guztiekin, Lantokiko Prestakuntzako moduluaren garapena aztertzeke gehienbat. Arte Plastikoetako eta Diseinuko zikloetan, prestakuntza praktikoko faseak gutxiago irauten duenez, bilera kopuru hori murrizten ahalko da baina gutxienez tutoretza saio bat egingen da.

Ikastetxeko tutoreak lan plana aurkeztuko dio ikasketaburuari, onetsi dezan. Plan horretan zehaztuko du zer nolako arreta egingen zaion LP modulua egiten ari den ikasleari eta zer bisita egingen dizkion enpresako arduradunari.

Beharrezkoa den kasuetan, heziketa zikloaren koordinatzaileak bere gain hartuko du LP modulua egiten ari diren ikasleentako batzuen jarraipena egitea.

Ikasturte bukaeran, Kanpoko Lanbide Jardueren Departamentuak beharrezkoak diren bilerak egingen ditu, ikasturtean garatutako jarduera planari buruzko balorazioa egiteko. Testuinguru horretan, Lantokiko Prestakuntzari buruzko asebetetze mailaren gaineko inkestak egingen ditu ikasleen, moduluko tutoreen eta enpresen artean. Inkesta horien emaitza Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalera igorriko da, azterketa eta jarraipena egiteko.

Era berean, Kanpoko Lanbide Jardueren Departamentuak aginduzko memoria prestatuko du, ikastetxearen ikasturte bukaerako memoriari eransteko.

Urteko memoria edo txosten horren kopia bat Gizarte edo Eskola Kontseiluari aurkeztuko zaio eta Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuari igorriko zaio, uztailaren 10a baino lehen. Txosten horretan bilduko dira programatutakoaren betetze mailari eta ebaluazioari buruzko datuak, gertatutako arazoak, hobetzeko proposamenak, jarraipeneko eta ebaluazioko datu estatistikoak, etab.

6.- LANERATZEA

Hezkuntzako kontseilariak apirilaren 5ean emandako 34/2013 Foru Aginduak (apirilaren 29ko NAO) LANTOKIKO PRESTAKUNTZA MODULUAREN garapena arautzen duen 45/2009 Foru Agindua aldatzen du eta, besteak beste, esaten du ikastetxe bakoitzak laburpen bat egin behar duela titulua eskuratu duten ikasleen eta haien laneratzearen gaineko datuekin.

Datu horiek, ikasketak aurreko ikasturtean (2018-2019) amaitu dituzten Heziketa Zikloetako tituludunenak, abenduaren 31 baino lehen igorri beharko dira Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalera, ikastetxeko zuzendariak berrikusi eta ontzat eman ondoren, ezarritako ereduaren arabera.

7.- LP DEUSEZTATZEA.

Zikloko irakasle taldeak, ikastetxeko zuzendariaren oniritziarekin eta koordinatzailearen bitartez, tutoreak txostena egin ondoren, baliogabetu egin dezake ikasleei Lantokiko Prestakuntza modulua egiteko eman zaien baimena, ikasleen errendimendua edo portaera benetan desegokiak baldin badira. Neurri horren ondorioz, aipatutako moduluen kalifikazioa “EZ GAI” izanen da eta, orobat, ikastetxeak ikasleari diziplina espedientea irekitzea ekar dezake.

Horrelakoetan, ikasleak soilik beste behin egiten ahalko du Lantokiko Prestakuntza modulua, beste enpresa batean eta modulu hau egiteko gaitzen den hurrengo epean.

Ahalik eta kasu gutxienetan gertatu dadin ikasleen Lantokiko Prestakuntza deuseztatu beharra, funtsezkoa da kontuan izatea ikastetxean egiten diren moduluen ikaskuntzaren emaitzetan eta ebaluazio irizpideetan jarrerarekin loturiko alderdiak, eta ebaluazioan garrantzi nahikoa ematea. Horrela, izan litezke kasu batzuk non ikasleren batek ez lukeen gaindituko modulu jakin bat (edo gehiago) ikastetxe barruko ikaskuntza prozesuan izandako jarrera txarragatik eta, ondorioz, ezin izanen lukeen LP modulua egin.

8.- LP MODULUA EGITEAN GERTA DAITEZKEEN ISTRIPUAK

Istripu bat gertatzen denean, ahalik eta lasterren jakinarazi behar zaio Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalari, istripu parteak egiteko ezarritako ereduaren arabera.

- Eskola aseguruak estaltzen dituen ikasleak. (Egin beti eskola asegurua)

Abuztuaren 13ko 2078/71 Dekretuaren arabera (1971-09-18ko EAO), *"praktikak egiten ari diren ikasleentzako istripu aseguruaren araubidea eskola aseguruaren arloko arau indardunek eta aseguru horren mutualitatearen estatutuek ezarritakoa izanen da"*.

Eskola aseguruaren onuradun dira Europar Batasuneko herrialde guztietako nazionalitatea duten ikasleak eta Espainian legez bizi diren ikasle atzerritarrak, 28 urte baino gutxiago badute.

Zentzu honetan, garrantzitsua da eskola aseguruari dagokionez Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Zuzendaritza Probintzialak ematen dituen jarraibideei kasu egitea. Ikasle hauek Iruñeko **San Fermin Klinika** itunduan artatuko dituzte.

- Eskola asegurutik kanpo gelditzen diren ikasleak.

Ikasle aseguruua aplikatzeko adin muga 28 urtekoa da. Eskola asegurua aplikazio eremutik kanpo daude, berariaz, aldi berean alta emanda daudenak Gizarte Segurantzaren araubideren batean, edota ISFAS, MUFACE edo MUJEJUn; horrelakoetan kasuan kasuko araubidetik jasoko dira prestazioak.

Eskola asegurua ez ditu estaltzen bizileku agiriak behar bezala izan gabe ikastetxeetan sartzen diren ikasle etorkinak, beraz, istripu bat dutenean sare publikoko ospitaleetan artatu behar dituzte.

Eskola asegurua estaltzen ez duen ikasle bat osasun zentro batean artatzen badute eta osasun zentroak dagokion **faktura** egiten badu, fakturak ikaslearen izenean egon behar du. Kasu horietan, ikastetxeko tutorea arduratuko da Enpresako Lanbide Heziketaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Bulegora igortzeaz, Hezkuntza Departamentuak kontratatutako polizaren bidez ordain dadin.

9.- IKASLEEN ERANTZUKIZUN ZIBILA.

LPa egiten duten ikasle erantzukizun zibilarekin lotura duten gorabeherei erantzunik egokiena eman dakien, Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalari jakinarazi behar zaizkio, berehala erabaki ahal dezan kasu bakoitzerako irtenbiderik proposena.

10.- KUDEAKETA GASTUAK

Ikastetxeko Gastuen Aurrekontuan behar diren zenbatekoak zehaztuko dira jarraibide honetan aipatzen diren jardueretatik datozen gastuei aurre egiteko.

Zenbateko horiek berariaz erabiliko dira ikasleek enpresa edo erakundeetan ematen dituzten prestakuntza aldien programazioak, jarraipenak, kontrolak eta ebaluazioak sortzen dituen gastuak ordaintzeko, bai eta erantzukizun zibileko polizan ezarritako frankiziari aurre egiteko ere.

11.- INTERESDUNENDAKO INFORMAZIOA

Ikastetxeek aldeztatik eman behar diete jarraibide hauen edukiaren berri, eragiten dieten alderdiei dagokienez, LP modulua egin behar duten ikasleei, ikastetxeetako tutoreei eta ikasleok hartuko dituzten enpresa edo erakundeei.

12.- DOKUMENTUEN TRAMITAZIOA

Lanbide Heziketa Dualaren eta Etengabeko Ikaskuntzaren Atalak jarraibide zehatzak emanen ditu LParekin loturiko dokumentuak behar bezala tramitatzeko.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an